

IRAKURMENA

1. TESTUA

Argia astekarian ateratako 4 libururen berri irakurriko duzu. Irakurri testuak eta horien ondorengo esaldiak. Idatzi laukitxoetan zein testuri dagokion esaldi bakoitza. Esaldi **bat sobera dago**, eta *0* adibidea da.

A. IZAR-MALCOAK

Fernando Morillo

AIZKORRI

116 orrialde

6,95 euro

HAMASEI URTEKO GAZTE BATEN ARAZOAK

Gazte-literaturan Fernando Morillok kaleratu duen laugarren nobela da «Izar-malkoak» deritzana. Protagonizatzen duen, hamasei urteko gazte informatikazale eta nahiko ezkorra. Mutil honek, asko espero ez duenean, izugarri erakartzen duen neska ezagutuko du eta berarekin ateratzeko aukera ere izango du bolada batean. Maitasunaz eta sexuaz gozatuko du zoratzerraino menderatuko duen neska horrekin, baina bizitza ez omen da paradisua, bide gogorra eta konplexua baizik, edo horrela uste du «hacker» izateko bidean ondo kokatua dagoen gazte horrek behintzat, eta halako batean bere uste horren frogarria izango du berak ere.



B. TRATAKTUS FILOSOFIKUM SAKONIS

Xabier Galarreta

HIRIA

106 orrialde

10,7 euro

GALARRETAREN NOBELA PUNKY-NIHILISTA

Xabier Galarretaren azken nobela honek 2000. urtean kaleratu zuen «Gaueko abentura» liburuarekin lotura handia dauka, bilogia bat osatzerainoko lotura, egia esan. Irakurleak osatu behar duen puzzle handia baino ez den narrazio honen ardatza bakarriketa da, non ironia, absurdua eta halako espirtu punky-nihilista batean pinarturik idazlearen/gizakiaren bakardadea uzten den agerian. Xabier Galarreta literatur mugimendu eta talde guztietatik aparte bide bakarti eta pertsonala urratuz dabilen idazlea dugu. Argitara eman dituen liburuen artean, honakoak aipa genitzake: «Gauak gauari», «Gaueko abentura», «Zenbaki sorginduak», «Itsasoko istorioak», «Itsasargiko misterioa», «Argi ilunean» eta «Murruez bestaldean».



C. ERRAUTSERA ARTEKO SUGARRA

Imanol Zurutuza


ELKAR

207 orrialde

13 euro

IMANOL ZURUTUZAREN LAN ERREPIKAEZINA

Hamaika lan idatz dezake etorkizunean Imanol Zurutuza, baina ezingo du «Errautsera arteko sugarra» errepikatu, benetan gertatu zen gaixoaldi eta heriotz batek bultzatu zuelako nobela hau idaztera, eta bertan islaturik ageri diren sentimenduak eta bizipenak harekin loturik daudelako. Emaztea galdu du idazlaneko protagonista den alargunak, eta bakardadeak eta atsekabeak eraginda ekiten dio liburua idazteari. Bere oroitzapenen ziztadak eramango du gizakia idazten hasi zenez geroztik heriotzaren inguruan egin dituen hainbat gogoeta poetiko zein prosazkoekin eta bere emazte zenak jasan zuenarekin lan hau osatzera. Erabaki hori hartzearekin batera, ordea, hegazkin bat ikusten du zeruan barrena, eta han barruan doan emakume baten mina hasten da somatzen.



HADE

D. PAUL NICHOLSON. HIRU ASTE RAMALAKO SETIOAN

Jose Mari Pastor

EGUNKARIA

90 orrialde

10 euro

PAUL NICHOLSONEK RAMALAN BIZI ZUENA

Euskaldunon Egunkariak EHNEko Paul Nicholsoni Ramalako Mukatan hogeita hiru egunez Arafaten giza ezkutu bezala bizi izandakoa agertuko zuen erreportaje liburua egiteko eskatu zionean, gizona prest egon zen esperientzia hura kontatzeko, baina garbi adierazi zien berak ez zekiela libururik idazten. Beraz, egunkariko nazioarteko sailaren arduraduna den Jose Mari Pastoren esku jarri zuten Paul Nicholsonek zioena agertzeko eginkizuna. Eta horixe da «Paul Nicholson. Hiru aste Ramalako setioan» liburuak jasotzen duena: bost hilabete Ramalatik irten ezinik zeramatzan Arafat palestinar presidentea israeldarren erasoetatik babesteko, nazioartetik elkartasuna adieraztera joandako Paul Nicholson eta beste hainbat lagunek bizi izan zutena.

Tres semanas
en el sitio
a Ramala

Conversaciones con Paul Nicholson

Jose Mari Pastor

Hasia - No Hasia

Egitekoa:

Idatzi laukitxoetan esaldi bakoitzari zein testu dagokion.

- Letra bera behin baino gehiagotan erabili beharko duzu.

Esaldi **bat sobera dago**.

Adibidea:

0. Protagonista nahiko ezkorra da.

A

1. Ezin dugu idazlea inolako mugimendu edo taldetan kokatu, berezia da.

2. Polizia-nobela da.

3. Idazleak beste batek bizi izandakoaz idatzi du.

4. Protagonista nerabe bat da.

5. Aurrez uste zuena frogatuko du protagonistak.

6. Bizitzaren gazi-gofoak erakusten ditu, une goxoak eta nekezak.

7. Oinaze handi batek bultzatuta idatzitako liburua da.

8. Idazle berak idatzitako beste liburu batekin du zerikusia.